

Gogoaren Baitan

Herrikoia

Violon 1

Violon 2

5

9

13

17

21

25

A C F C G

B C G C

C C F Dm G Em Am F C G C

2

Erabaki nuen, tinko ta fermuki, ez zitzaidala gertatuko,
Maitasun saretan ez nintzela berriz uste gabeen eroriko.
Bi begi izpitxu, irripa ezti bat izan dira nere galtzaile
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan, ezinezko amets sortzaile.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan, zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke sorgin bat bilaka banedi,
Ezina egikor aldatzeko aina, gezurra bihurtzeko egi.
Zer den ona edo zer ote den txarra jakin beharko nukelarik
Sumendi gainean erretzen ari naiz ba al dago irtenbiderik ?

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan, zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi, uneak nahi ditut bizi.
Lau egun dira ta, bi omen lanotsu, galtzera ez ditut na'i utzi.
Hitzaren jokoan, itxura emanez, gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako, egoera hunen sormena.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan, zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.